

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 18a / 589. zenbakia



BETI-BUSTI

EUSKADIKO TXAPELKETAN BRONTZEZKO DOMINA LORTU DU TALDEAK



UDALA: GIZA PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK/4 • KULTURA: 'KIXI'-RI ELKARRIZKETA/12

AZALA: MAITENA ARANA / JATORRIZKO ARGAZKIA; BETI-BUSTI TALDEA

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 18**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74
- ZAPATUA, 19**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- DOMEKA, 20**
ZABALA, Barrenkalea 25..... 943 76 16 87
- ASTELEHENA, 21**
GUALLAR, San Antonio 5..... 943 76 11 05
- MARTITZENA, 22**
ESTELLA, Matxiategi 5..... 943 76 19 63
- EGUAZTENA, 23**
MOZOS, Iparragirre 2..... 943 76 12 15
- EGUENA, 24**
CAMACHO, Oxirondo 4..... 943 76 11 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaiileak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRIAOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|---|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak:
19:00. | Labegaraieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00.
Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Santa Marina
Domekak:
10:30, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30.
Domekak: 12:00. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Ubera
Domekak: 10:30. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | San Juan
Domekak: 11:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Elorregi
Domekak: 10:30. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1966AN JAIOTAKOEN AFARIA
1966an jaiotakoek afaria ekainaren 19an Sirimiri jatetxean. Ariznoa tabernan elkartuko dira, 20:00etan.

1960AN JAIOTAKOEN AFARIA
1960an jaiotakoek afaria ekainaren 19an Azpeitxi jatetxean.

ODOL ATERATZEA EGUAZTENEAN
Hurrengo odol ateratzea eguaztenean, ekainaren 23an, izango da, Seminarioan, 18:30ean hasita.

POL-POL ETA GORLA ALPINOREN IRTEERA
Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeek ekainaren 26 eta 27rako bi eguneko irteera antolatu dute, Luchon eta Benasquera. Txartelak Pol-Poleko bulegoan eskura daitezke, ekainaren 17ra arte. Argibideak 943 76 48 51 telefono zenbakian.

PAILAZO EMANALDIA GAUR
Bedelkar dendarien elkarteak antolatuta, Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia izango da gaur, ekainaren 18an, San Martin plazan, 19:00etan.

JARDUNEN AGENDA

OLINPIADEN AZKEN JARDUNALDIA ZAPATUAN
Jardunek antolatutako olinpiaden azken jardunaldia jokatu da bihar, zapatua, 16:00etan hasita. Parte hartzen diharduten taldeek orientazio proba jokatu dute bihar. Horren ondoren, sari banaketa egingo dute.

KANTU LIBURUKAK BI EUROTAN SALGAI
Euskal kantuen liburukak kaleratu ditu Jardunek. Liburukak salgai daude Pol-Polen, Kortazarren eta Jarduneko bulegoan, bi euroren truke.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Lazkano: 'Egunkaria'-ko gerentearekin berriketan

Euskaldunon Egunkaria-n gerente lanetan ziharduen Fermin Lazkano elkarrizketatu genuen 1994ko ekainean. Akzio-salmenta kanpainari ekin zion orduan *Egunkaria*-k. Lazkanok adierazitakoaren arabera, produktuaren kalitatea hobetzeko irakurleen bultzada beharrezkoa zen.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Pipertu"



Piparmindu.
— Ziero pupertuta jartzen da Realak galtzen dauenian.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Martitzena, 15	10 °C
MAXIMOA Eguaztena, 9	34 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0 L


	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 9	34 °C	18 °C	- l/m²
Eguena, 10	26 °C	19 °C	- l/m²
Egubakoitza, 11	21 °C	18 °C	- l/m²
Zapatua, 12	24 °C	18 °C	- l/m²
Domeka, 13	24 °C	12 °C	- l/m²
Astelehena, 14	21 °C	12 °C	- l/m²
Martitzena, 15	25 °C	10 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKOA

BERGARA HIRIKO ARGAZKIAK

Bergara Hiria XX. Argazki Lehiaketako lanik onenak ikusgai daude kultura etxean. Aurtun 165 argazki jaso dituzte, eta Javier P. Fernandez Ferreras bikaitarrak eraman du lehen saria, zuri-beltzean zein koloreetan. Bi kategorietan Jose Agustin Gurrutxaga izan da Bergarako onena. Erakusketan domekara arte izango da ikusgai kultura etxean, zapatuan eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.



BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

HIRU BIDE

JATETXEA-BENTA

Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

ATREBENTZIAZPADA/ Nora joaten zara eguzkia hartzera eta bainatzera?



LINA DE JESUS
50 urte



MARIBEL ANDUEZA
65 urte



LORETO LALINDE
65 urte



ENERITZ MUGURUZA
21 urte



JON MENDIZABAL
21 urte



JOSU AZKARATE
23 urte

Etxean badut zelai bat, eta han hartzen dut eguzkia. Gainontzean, Landako urtegiara joaten naiz. Izan ere, hondartzara joatea ez zait askorik gustatzen, jende gehiegi egoten da.

Zarautzera joaten gara lagun bat eta biok. Autobusean joaten gara Eibarrrera, eta gero trenez Zarautzera. Igerilekuek joaten ginen lehen, baina orain, beti hondartzara.

Eguzkia hartzera joaten naiz Goriara edo Landako urtegiara. Hondartza baino askoz hobeto dago Landako urtegia eguna pasatzeko; hondartzan jende gehiegi egoten da.

Zumaiako hondartzara edo Garaioko urtegiara joaten naiz normalean. Denbora laburra edukiz gero, Goriara joaten naiz eguzkia hartzera. Lehenago, igerilekura ere joaten nintzen.

Zarautz, Deba edo Lekeitioko hondartzetara eta Oñatiko Usakora joaten naiz bainatzera. Gainontzean, mendira ere joaten naiz, pixka bat ibili eta eguzkia hartzera.

Elgetakoa naiz ni, eta Asentziara joaten naiz askotan eguzkia hartzera. Bainu bat hartzekotan, Oñatiko Usakora. Igerilekura eta hondartzara ez naiz joaten; ez naiz oso zalea.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK DEBA IBAIA Irakurle batek baino gehiagok arrazoi beretatik deitu digu azken astean. Joan den martitzeneko ekaitzaren ondorioz, Deba ibaia ohi baino zikinago zetorren, beltz kolorekoa ia. Antza, ez da ibaia horren zikin egoten den lehen aldia. Mankomunitateari edo dagokion erakundeari beharrezko neurriak har ditzala eskatu nahi diote, ibaia berreskuratzeko lana ezertan gera ez dadin. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /6

Sahara astea

Komite Internazionalistak taldeak antolatutako Sahara astea amaituko da bihar, zapatua.

KIROLA /9

Arantzabal, bolada onean

Unai Arantzabal txirrindulari bergararra, bigarren Euskadiko erlojupeko txapelketan.

KULTURA /12

'Aupa Etxebeste' hasteko gertu

Telmo Esnal eta Asier Altuna *Kixi* udan hasiko dira errodatzen Aupa Etxebeste beraien lehen luzemetraia.

ASTEKO DATUA

O

AZKEN ASTEAN EZ DU EURI TANTARIK EGIN

Joan den ekainaren 8ko ekaitzaren ondorioz, ez du euririk egin Bergaran. Luis Mari Agirrek eman dizkigu eguraldiko datuak, astero moduan. Badirudi aurten ere uda beroa izango dugula.

BESTEKEKESANA

“Guggenheim-era itzuli nintzen eta Rothko eta Rosenquist-en erakusketekin gozatu nuen. Baina, batez ere, Bergarako Manu Muniategiandi-koetxea margolari handiaren erakusketa dastatu nuen, Rekalde aretoan. Erakusketa handia jarri du; marrazki erotikoei deitzen dute atentzia, batez ere. Berarekin hitz egin nuen gero eta esan zidan lan horiekin osatutako liburu bat prestatzen ari dela”
MITXEL EZQUIAGA / *Kazetaria*
El Diario Vasco/04-06-12

“Taldea indartsua da Zaragoza eta gogoz eta ilusioz nator. Gogorra izan da Realta uztea, inoiz ez dut ahaztuko han bizi izandakoa. Zaragozan jokatzeko esperientzia berria da eta esperientzia berri honek asko motibatzen nau”
AGUSTIN ARANTZABAL / *Futbolaria*
El Diario Vasco/04-06-16

BERAIEKDIÑO/ Ainhoa Agirreazaldegia



Oinarritik kale hauteskondeek

Igaro berri dira Europako hauteskondeak. Biharamunean egunkari eta irratietan ia politikoko guztiak beren buruarekin gustura zirela irakurri/entzun nuen. Horrek berak soilik balio behar luke hauteskondeek eta politikak oinarritik dituzten hutsunez jabetzeko. Ni neu, oinarritik erabat zapalduta sentitu naiz oraingotan ere, eta igandean ikusitako hiruzpatalau oinarritzko hutsune sentitu bezala kontatzen nator:

Hasteko: “Nahi duenari eman diezaiola botoa jendeak, baita HZri ere”, esan zuen kanpainan Ibarretzek. Oinarritik, HZ ezberdindu. Baztertu. Ilegalizazioarekiko desadostasuna erakusteko modu bikaina, bai jauna.

Bigarren: HZri botoa eman nahi zionak, ezin boto-paperik bere lekuan aurkitu. Eskerrik asko euskal alderdi demokratikoei.

Hirugarren: Botoa ematera joan, Euskal Herriko Nortasun

Agiria atera eta hau ere ilegalizatuta, Euskal Herriko partiduen laguntzarekin. Zer gara baina gu, euskaldunak ez bagara? Horretara ere iritsi gara? Horretara ere ez gara iristen?

Laugarren: abstentzio izugarria. Horrek erakusten du, beste behin, hauteskondeak ez direla ez Europa, ez Euskal Herria, ez norbere herria eraikitzeko modu egokia. Gauzak ezin dira lau urtez behingo boto-paper baten bidez erabaki, ez horixe. Herritarrok maizago,

gertuagotik eta modu zuzenagoan hartu behar dugu parte politikan. Baina, noski, hori gehienei ez zaie komeni. Horrek prozesu guztiak gerdanago (askoz ere gardenago) adieraztea eskatuko luke. Eta batzuentzat emankorragoa da proiektuen azalpen guztiak Abiadura Handian ematea, inor ezertaz oihartzeko astirik izan gabe, eta gero datu ekonomiko batzuekin guztia kamuflatzea.

“Maizago gertuagotik eta modu zuzenagoan hartu behar dugu parte politikan”

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Usua Agirre
Irati Agirreazaldegia
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkorobereibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

GIZARTEA/ Gobernuz kanpoko erakundeendako izango da dirulaguntza handiena: 58.400 euro

Giza proiektuetarako 78.400 euro bideratuko ditu aurten Bergarako Udalak

EDU MENDIBIL

Udalak 78.462 euro bideratuko ditu giza proiektuen alorrean lanean diharduten taldeendako. Gobernuz kanpoko erakundeek 58.473 euro jasoko dituzte eta herrian zerbitzu sozialen alorrean lan egiten duten taldeendako 19.989 euro egongo dira.

Bergarako Udaleko Ongizate Zerbitzuak iazko dirulaguntza bera emango du aurten. Esan bezala, gobernuz kanpoko erakundeek jasoko dute dirulaguntza handiena: 58.473 euro, hain zuzen. Bederatzi elkartek aurkeztu dute eskaera udaletxean: Komite Internazionalistak, Felix Inurategi Baltistan Fundazioa, DOA (Denok Osasunaren Alde), ADECO (Amistad Desarrollo y Cooperacion), Rumanalde, Rokpa Euskadi giza mediku elkarte, Izan, Oscar Romero eta FISC erakundeak, hain zuzen. Era berean, Komite Internazionalistak eta Izanek sentsibilizazio proiektuak aurrera eramateko dirulaguntza eskaera egin diote Udalari.



Argazkian, FISC erakundearen bitartez Bergarara etorritako herrialde ezberdinetako lagunak.

Zerbitzu sozialen taldeen kasuan, 14 elkartek egin diote eskaera Udalari

sozialen alorrean lanean diharduten taldeei 19.989 euroko dirulaguntza emango die Udalak. Hamalau elkartek egin dute laguntza jasotzeko eskaera, tartean Bergaran egoitza duten San Joxepe erretiratuen elkarte, Odol Emaileak, Caritas, Atzegi, Debagoieneko Gurutze Gorria eta Aransgi gorren eskolak.

Udalak eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du datozen egunotan. Taldeek aurrera eramango dituzten jarduerak eta helburuak hartuko ditu kontuan. Zerbitzu sozialetako taldeen kasuan, baliteke datorren asterako erabakitzea aurreikusitako dirulaguntza nola banatu. Ez da eskatutako jardueraren aurrekontuaren %50 baino handiagoa izango. Gobernuz kanpoko erakundeekin, berriz, prozesua luzeagoa izaten da, dokumentazioa aztertzeaz gain, talde bakoitzarekin elkarriketak izaten dituztelako Ongizate Zerbitzuko arduradunek.

NAZIOARTEKO LAGUNTZA

Gobernuz kanpoko erakundeen kasuan, nazioarteko kooperazioa bultzatzea da Udalaren asmoa. Hain zuzen ere, garapen bidean dauden herrialdeetan laguntza

proiektuak bultzatu nahi dira lehenik eta behin. Behar handien daukaten kolektiboei laguntzeko asmoarekin, etxebizitzaren eta zentro sozialen

eraikitzea, osasun asistentzia eta komunitateei ura eramateko proiektuei lehentasuna emango zaie. Dirulaguntza osoaren %90 horretara bideratuko da eta gai-

nera %10 herri mailako sentsibilizazio proiektuetara.

ZERBITZU SOZIALETAN LANEAN

Bestalde, herri mailan zerbitzu

EAJ garaile, HZ indartsu eta abstentzio altua domekan

ERREDAKZIOA

Domekan, Europako Legebiltzarreko hauteskundeetan, EAJ alderdiak jaso zituen boto gehien Bergaran: 1.835 boto, hain zuzen. Bigarren indarra HZ izan zen, 1.237 boto jasota, eta PSOE eta Eusko Alkartasunak antzeko boto kopurua izan zuten: 666 boto sozialistek eta 652 EAK ordezkatzaren zuen Herrien Europaren Alde koalizioak. PP alderdiak 342 herritarren atxikimendua izan zuen eta Aralarrek 304

boto eskuratu zituen. Azkenik, Ezker Batuak 191 boto zenbatu zituen.

Abstentzioa sekula baino handiagoa izan zen domekan: %57,71, hain zuzen ere. Boto eskubidea zuten 12.519 herritarretatik 7.225 lagunek uko egin zioten domekan botoa emateari. Horren ondorioz, alderdi guztiek behera egin zuten azken hauteskundeetako boto kopuruari erreparatuz gero. Martxoaren 14ko Espainiako Legebiltzarreko hauteskundeetan abstentzioa %26,5 izan zen. Edozelan ere, botoen

portzentajeari begiratuta, baliogabetuek izan dute hazkunderik nabariena. Martxoan, Bergarako Ekimena plataformak 1.361 boto (%14,6) izan zituen eta domekan HZk 1.237 boto izan zituen: %23,39, hain zuzen ere. HZrekin batera, Aralar alderdiak izan du aldaketarik nabarmena, kontrako kasuan Patxi Zabaletak zuzendutako alderdian; izan ere, martxoan Aralar-Zutik koalizioak 1.105 boto (%11,8) jaso bazituen ere, domekan 304 boto (%5,75) besterik ez zituen lortu.

ATXILOTUTAKO BAT DOMEKAN

Orokorrean hauteskunde egun lasaia izan zen domekakoa. Herritarren Zerrendako ordezkariak salatu zuten, Ertzaintzak herriko gazte bati Segiko kamiseta kenarazi egin zion botoa emateko orduan. Era berean, EHNA agiriarekin botatzerik ez izana salatu zuten; izan ere, hainbat herritar EHNA erakutsita botoa ematera hurbildu zen hauteslekuetara, baina NA, pasaporte edo gidabaimenarekin bozkatu behar izan zuten azkenean.

2004ko Europako Legebiltzarreko Hauteskundeak. Bergarako emaitzak zonaldeka

	Hautesle errola	Abstentzioa	EAJ PNV	Eusko Alkartasuna	PSOE	ARALAR	HZ	PP	Ezker Batua
ERDIALDEA	6.089	%56,1	918	389	262	153	619	180	93
MATXIATEGI	3.498	%58,5	512	152	223	82	331	101	41
MARTOKO	2.038	%59,7	269	73	151	38	185	55	42
LABEGARAIETA	894	%58,9	136	38	30	31	102	6	15
GUZTIRA	12.519	%57,71	1.835	652	666	304	1.237	342	191
BOTOAK	5.294	7.225	%24,74	%12,33	%12,59	%5,75	%23,39	%6,47	%3,61

LANA/ Konponbiderik ez badago, astebeteko greba egingo dutela aurreratu dute

Etkez etxeko zerbitzuko langileak, soluzioaren zain

E.M.

Etkez etxeko zerbitzuko langileek greba egin zuten astelehenean eta martitzenean. Gizaintza enpresako arduradunen aldetik ez dute oraindik inolako eskaintzarik jaso beraien eskakizunei eta mobilizazioekin jarraituko dutela aurreratu dute.

Gizaintza SL enpresarekin duten gatazka dela eta, etkez etxeko zerbitzuko langileek bi egunez greba egin dute astean. Aurreko astean esan genizuen bezala, urteko lan jarduna 21 orduetan murriztea (urtean 1.728 ordu lan egitea), soldataren %6,6ko igoera eta aldi baterako ezintasunak ordaintzea eskatzen diote enpresari. Langileen ordezkarien arabera, oraindik ez dute inolako erantzunik jaso enpresarengandik. BERRIGARA Gizaintza SLko ordezkarien iritzia jaso nahi izan du, baina ezinezkoa izan da.

ASTEBETERAKO GREBAN

Egoerak horrela jarraitzekotan, ekainaren amaieran astebeteko



Gizaintzako langileek txokolataa banatu eta sinadurak batu zituzten astelehenean.

grebari ekingo diotela adierazi dute langileek. Gaur egun 29 langilek dihardute etkez etxeko zerbitzuan lanean. Udalak azpikon-

tratututako zerbitzuari esker, herriko 99 etxetan eskaintzen da. Zerbitzua jasotzen dutenen batz besteko adina 79,2 urtekoa da.

Roberto Izagirre, irabazle Debaguneko ipuin lehiaketan

E.M.

Roberto Izagirrek lehen saria eskuratu du Debagune euskara elkargoak antolatutako ipuin barregarrien lehiaketan. **Aspaldikoak** lanari esker, Debagoieneko lehen saria ere irabazi du Izagirrek.

Roberto Izagirrek lehen saria irabazi du *Barre barra-barra* ipuin barregarrien lehiaketan. Izagirrek **Aspaldikoak** izenburuko lanari esker eskuratu du lehen saria. Aitaren kontakizunetan oinarritutako obra idatzi du Roberto Izagirrek. Teknologia berriekin aitak zuen arazoan berri kontatzen zizkion egileari. Horiekin batera, janzkera modek aitari eragiten zioten komentarioak jaso ditu Izagirrek saritutako ipuinean, besteak beste.


DEBAGOIENEN ONENA ERE BAI

Sari banaketa martitzenean egin zuten, kultura etxean. Sari banaketa ekitaldian bere ipuinaren pasarte bat irakurri zuen Robertok. Aurreneko aldia da Debagoieneko euskara elkartearen elkargoak ipuin barregarrien lehiaketa antolatzen duena. Lehen sariak gain (450 euro), Debagoieneko onenari zegokion saria (150 euro)

ere eskuratu du Izagirrek.

Aurreneko aldia izan da, eta etorkizunean ere *Barre barra-barra* ipuin lehiaketa antolatzen segituko dutela adierazi dute Debaguneko ordezkariak. Jasotako erantzunarekin gustura agertu dira.

Lehiaketara 12 lan aurkeztu dira eta lanen kalitatea goraipatu du epaimahaia. Idoia Etxeberriak, Mikel Elortzak eta Diego Martiartuk osatu dute epaimahaia.



Roberto Izagirre.

ARTXIBOA



Regino Valle omendu zuen Musika Eskolak

Bergarako Musika Eskolak Regino Valle omendu zuen domekan, Udaberriko Kontzertuan. Musika Eskolak 20. urteurrena bete du dagoeneko eta Regino Valle zuzendaritzan lanean izan da urte hauetan guztietan. Musika Eskolako sortzaileetako bat izan zen Valle. Esan bezala, Musika Eskolako ikasleek Udal Pilotalekuan emandako kontzertuan, plaka oroigarria jaso zuen, egin duen lan guztia eskertzeko. Argazkian, Regino Valle Arantzazu Gariñanorenekin.

LABUR

San Juan sua eguaztenean San Martin Plazan eta meza egunean San Juan auzoan

Bergarako Herri Mugimenduak antolatuta, San Juan sua egingo da eguaztenean, hilaren 23an, San Martin plazan, 22:00ak aldera. Traste zaharrak erretzeko aukera izango da.

Bestalde, egunean, ekainaren 24an, San Juan eguna ospatzeko meza izango da San Juan auzoko ermitan, 12:00etan.

Sendabelarrak jasotzeko ibilaldia izango da hurrengo zapatuan, Jardunek antolatuta

Jardun elkarteak antolatuta, sendabelar ezberdinak jasotzeko irteera egingo da hurrengo zapatuan, ekainaren 26an. Hiru ordu inguruko irteera izango da eta parte hartzeko interesa dutenek Jardunek Errotalde jauregian duen bulegora jo dezakete. Autobus geltokitik aterako dira, 09:30ean. Izenemateak 6 euro balio du. Jardunek gaiarekin interesa duten guztiei parte hartzeko deia luzatzen die. Edozein argibidetarako 943 76 08 19 telefonora deitu.

MAYA



BERGARA

% 30 eta % 50

ELKARRIZKETA

FATMA GALIA/SAHARARRA

“Gizarte liberala da gurea, eta pisu handiena emakumeen eskuetan dago”

EDU MENDIBIL

Komite Internazionalistak taldeak antolatutako Saharako Astearren barruan, Fatma Galiak saharar emakumeen gaineko hitzaldia egin zuen martitzenean. Fatma Galiak 10 urte daramatza Euskal Herrian. Kazetaritza ikasketak egin zituen Leioan.

Zein da saharar emakumeen egoera gaur egun?

Emakumeen egoerak hobera egin du azken urteotan, 1980ko hamarkadaren amaieratik hona batez ere. Alfabetatze maila altua da, etorkizun aukera ere hobeak dira lortutako ikasketa mailari esker, Fronte Polisarioan ere erantzukizun handiko postuak izatea lortu dute emakumeek... Bestalde, saharar emakumeak biltzen dituen erakundearen lana hor dago. Hemengo Emakundearen antzeko erakundea litzateke, eta horri esker emakumeok lorpen dezente lortzen ari gara.

Eta zein da gizonen eta emakumeen arteko lan banaketa saharar gizartean?

Gizon gehienak kanpoan dira, betebeharrak militarrik dituztelako. Lanpostu zibilei dagokienez, bulego eta ministerioetan emakumeen presentzia gero eta nabariagoa da. Gizartearen



E.M.

pisua emakumeen esku dagoela esan daiteke. Gizarte liberala da gurea eta emakumearen ahotsak garrantzi handia dauka.

Saharako auziak konponbiderik gabe jarraitzen du 1975etik hona.

Nazio Batuen Erakundeak eta

Marokok hitzartutako Baker Plana aplikatzea eta erreferendum demokratikoa aldarrikatzen gabiltza aspalditik. Oraintsu, James Bakerrek dimisioa aurkeztu du eta auzia geldirik dago. Bien bitartean, saharar herrialdea baldintza eskasetan bizitzen jarraitzen du, basamortuan eta behar askorekin.

Euskal Herriarekin lotura estua dauka saharar herrialdeak, ala?

Euskal Herriak laguntza handia eman digu aspalditik. Saharan ez da enpresarik, lanpostuak sortzea ia ezinezkoa da eta ondorioz nazioarteko laguntzari esker bizi dira han. Laguntza hori barik, ezinezkoa litzateke aurrera egitea. Iturri hori itxiko balitz, ziurrenik arriskuan legoke gure herriaren etorkizuna. Zorionez, borondate oneko lagunak ez zaizkigu falta eta itxaropena bizirik mantentzen laguntzen gaituzte.

Saharar neska-mutikoak ere etorriko dira aurtengo udan.

Bai, azken urteotan 300 inguru etorri izan dira Euskal Herri eta aurten gehiago izan daitezke. Hango baldintzak ikusita, bi hilabetez hemengo eskaintzarekin gozatzeko aukera dute saharar gaztetxoek eta bide batez elkartruckerako ekimen polita da.

Sahara, plazara

Komite Internazionalistak taldeak antolatuta, Sahararen inguruko ekitaldiak izan dira astean zehar Bergaran.

Ekitaldiekin bukatzeko, bihar, zapatua Saharako *haima* bat jarriko dute San Martin plazan, 11:00etatik 14:00etara. Ipuin kontalariak, te dastatzea, erakustaldiak, Saharako jantzien erakusketa eta *hena*-rekin eskuak pintatzeko aukera egongo da, besteak beste.

Komiteek harreman estua daukate sahararrekin. Besteak beste, janari bilketan hartu zuten parte urtarrilean. Markos Gabilondo Komiteetako kidearen hitzetan, “Saharako egoera salatu nahi dugu, hainbeste sufrizten ari den herrialderi behingoz konponbidea eman diezaioten”.



Bergara dantzara! erromeriako zozketa, Mari Carmen Goitirentzat

Abarka elkarteak pozik azaldu da zapatuan ospatutako Bergara dantzara! erromeriak izandako erantzunarekin. Egun osoan 200 bat dantzari aritu ziren herriko kaleak animatzen. Zozketan, berriz, 1.622 izan zen saritutako zenbakia. Mari Carmen Goitik euskal produktuen saski ederra eskuratu zuen. Argazkian, irabazlea Juantxo Urbietak eta Angel Agirreazaldegiren ondoan.

LABUR

San Martzialgo erromerian taberna eskuratzeko eskaerak egin daitezke

San Martzialgo erromeria uztailaren 4an ospatuko da. Hori dela eta, egun horretan taberna eta txosnaren ardura izan nahi duten irabazi asmorik gabeko elkarteek udaletxean egin dezakete eskaera. Baldintzen plegua udaletxeko idazkaritzan jaso daitezke.

Eskaerak aurkezteko epea astelehenean, ekainaren 21ean, bukatuko da, eguerdiko hamabietan.

Odol Emaileen Elkartek eguazteneko odol ateratzean parte hartzeko dei egin du

Bergarako Odol Emaileen Elkartek datorren asteko odol ateratzean parte hartzeko dei egiten die herriko odol emaileei. Ohikoa denez, eguaztenean, hilaren 23an, izango da odol ateratzea, Seminarioan, 18:30ean hasita.

Azken odol ateratzean 45 lagun inguruk eman zuten odola. Uztailan beste bi odol ateratze egingo dira, hilaren 7an eta 21ean.

Abiadura handiko mekanizazio erakustaldia egingo da martitzenean Miguel Altunan

Inguruko enpresei bereziki zuzenduta, abiadura handiko mekanizazio erakustaldia izango da martitzenean, hilaren 22an, Miguel Altunan, 16:00etan.

Hurrengo ikasturtean abiadura handiko mekanizazio molde eta matrizeetan erakutsiko da Miguel Altunan.

MINGAINARITIRAKA



Mari Karmen Nogueiras

MIRARI ARROPA DENDAKOA

Orain dela hamabost bat urte zabaldu zuen Mirari denda Mari Karmenek. Gizonezko eta emakumezkoendako arropa, perfumeak, ume txikiendako arropa, belarritakoak, mertzeriako produktuak... Denetik saltzen du. Baita egunkaria ere.

Arropa denda edukita, moda jarraituko duzu, ezta?

Bai, saiatzen naiz, behintzat. Askok gustatzen zait, gainera, modaren mundua.

Zeuri ze estilotako arropa gustatzen zaizu?

Ni nahiko klasikoa naiz janzteko orduan; dena dela, arropa modernoa ere asko gustatzen zait.

Zer ez da falta behar armairu baten?

Edozein momentutan janzteko moduko arropa, gustura sentiaraziko zaituen arropa.

Zer falta du Bergarak?

Auzoak hobeto zaintzea; auzo hau, esaterako, Martoko eta Zubiaurre ingurua, hain zuzen ere, hilda dago; supermerkatu bat, arrandegi bat eta harategi bat, gutxienez, falta zaizkigu. Ogia erosteko aukerarik ere ez daukagu.

Eta zer gauza on dauzka?

Askok; oso jende jatorra dago, denok ezagutzen dugu elkar eta elkarrekin harremana dugu.

Zeuk zer falta duzu?

Dirua.

Zer da zure lanean gehien gustatzen zaizuna? Eta gutxien?

Dena gustatzen zait; bizitza osoa daramat lanbide honetan eta izugarri gustatzen zait.

Zer behar da dendari ona izateko?

Neuk baneki! Ni saiatzen naiz neure lana ahalik eta ondoen egiten. Jendearekin tratu ona izatea oso garrantzitsua da lan honetan.

Denbora librean, zer egitea gustatzen zaizu?

Egia esan, ez daukat denbora librerik, baina, izango banu, kirola egiteko aprobetxatuko nuke; ez nuke arratsaldea kafetegia baten eserita pasatuko; hori denbora galtzea dela iruditzen zait.

Zerk amorratzen zaitu?

Irtenbiderik ez daukaten gauzek; inpotentzia sortzen dizkidaten arazoan aurrean amorratu egiten naiz.

Zer irakurri nahiko zenuke egunkarian?

Zerbait atsegina, dena albiste txarrak izaten dira eta.

AINZANE IRIZAR

NIREBIDAIAHURA / Argiñe Muruamendiaraz

KUBA / 2003ko abuztuan

Komite Internazionalistek antolatzen dituzten brigadekin joan ginen hiru bergarar Kubara; Saioa, Eider eta hirurok egon ginen hantxe iaz, abuztuan. Guztira, hogeitabat euskaldun joan ginen.

Kuba erdialdean egon ginen, nekazarien herri txiki baten, Sietecito herrixkan, hain zuzen ere. 3.000 bat biztanle dauzka herri horrek, eta hango eskola margotzea izan zen gure lana. Goizez lanean jarduten genuen, eta arratsaldeak libre izaten genituen, inguruak ezagutzeko. Dena dela, zenbait arratsaldetan hitzaldiak ere izan genituen; nekazariak, Castroren alderdiko kideak, emakume taldeetakoak, komunista gazteen taldeetakoak eta abar etorri zitzaizkigun berbaldiak egitera.

Sietecito, esan bezala, nekazaritza-gunea da, nekazaritza bizi dira: azukre-kanaberak ekoizten dituzte, batez ere. Gana-dua ere badute, bufalo deitzen dieten behi antzerako batzuk dituzte.

Nahikoa ondo bizi dira kubatarrek nekazaritza-guneetan; miseria gehiago dago hirietan eta turismo-guneetan.

Hiru aste egin genituen Sietecito herrian, brigadista moduan lanean. Gero, astebete izan genuen turismo pixka bat egiteko. Trinidad, Viñales eta



“Brigadista joan ginen Kubara; nekazaritza-gune baten egon ginen, eskola bat margotzen”

“Kubatarrek langileak dira; gertatzen dena da beste erritmo bat dutela”

dela, Kubara doan edozeini esango nioke toki turistikoetara joanda ere, handik pixka bat aldendu eta beste inguru batzuetako kubatarrek ezagutzea merezi duela.

AINZANE IRIZAR

Habanan egon ginen. Hamar bat lagunek egin genuen aste-beteko bidaia hura. Autobus txiki bat hartu genuen errentan, eta hantxe ibili ginen. Izugarria da nekazaritza-guneetatik turismo-guneetara dagoen aldaketa. Ingurunea bera ere oso ezberdina da, baina baita jendearekiko harremana ere. Izan ere, barrualdeko herrietan, jendea etortzen zaizu hemengo berri izan nahi duelako: hemen zela bizi garen, bizi garen tokia zelakoa den... Interes horrekin gerturatu zaizkizu. Toki turistikoetan, berriz, beste interes batzuk dituzte gehienek, interes ekonomikoak, hain justu.

Oso alaiak eta lasaiak dira; hala ere, ez pentsa lanik egiten ez dutenik; langileak dira, gertatzen dena da beste erritmo bat dutela. Bestalde, daukaten gutxiarekin aurrera egiten dute beti. “El cubano inventa” esaldia asko erabiltzen dute; edozein arazori irtenbidea emateko beti asmatzen dute zerbait.

Astebeteko bidaia hartan oso gustura ibili ginen. Dena

La solidaridad es la ternura de los



Brigadistak eta Sietecitoko hainbat herritar, eskolaren aurrean.

EKAINEAN ESKAINTZA BEREZIAK

Haurtzaintza

- Haur-kotxea
- Segurtasun aukiak
- Sehaskak
- Osagarriak

Haurrentzako arropak

- 0 eta 10 urte artean



Herri Lagunak 6, behea.
Bergara . Tel.: 943 76 05 24

PIRAGUISMOA

Beti-Busti taldekoek lau domina eskuratu zituzten Euskadiko eslalom txapelketan

Taldeakako sailkapenean hirugarren izan ziren; banakako probetan, Iraitz Artolak (gazte mailan) eta Leire Fernandezek (kadeteetan) urrea lortu zuten

USOA AGIRRE

Joan den zapatuan jokatu zen Irunen Euskadiko eslalom txapelketa. Bergarako Beti-Busti elkarteak hirugarren postua lortu zuten taldeakako sailkapenean. Bakarkako probetan ere emaitza onak lortu zituzten Beti-Bustiko kirolariak.

Guztira, lau domina eskuratu zituzten Beti-Bustikoek joan den zapatuan Irungo uretan jokatu zen Euskadiko eslalom txapelketan. Taldeka, hirugarren postuan gelditu ziren, Irungo Santiagotarrak eta Donostiako Atletico San Sebastian talde handien atzetik. Banakako probetan, berriz, bi urrezko domina eta zilarrezko bat ekarri zituzten Bergarara: Iraitz Artola lehenengoa izan zen gazte mailako gizonzkoetan; Leire Fernandezek ere urrezko domina eskuratu zuen kadete mailan, emakumezkoetan; azkenik, Markel Cestafe bigarren izan zen kadete mailako gizonzkoetan.


Beste bost lagunek ere parte hartu zuten probetan. Nagusien mailan Roberto Puy bosgarren sailkatu zen eta Eneko Iturrospe hamaikagarren izan zen. Kadete mailako gizonzkoetan, Markel Cestafe bigarrenarekin batera, Ibon Etxezarreta ere aritu zen; bederatzigarren sailkatu zen. Lehenengo urteko infantiletan Imanol Berroia bosgarrena izan zen; bigarren mailako infantiletan, berriz, bosgarren sailkatu zen Iraitz Arizabaleta. Aipatzekoa da, bestalde, Beti-Bustiko Markel Agirrek ezin izan zuela Euskadiko txapelketan parte hartu, Gipuzkoako selekzioarekin Austrian zegoen-eta munduko hainbat

selekzioaren arteko txapelketa batean parte hartzen.

HURRENGOA, ESPAINIAKO TXAPELKETA Maiatzaren azkeneko aste bukieran jokatuak Gipuzkoako eslalom txapelketan ere bikain aritu ziren Beti-Bustikoak. Izan ere, zazpi domina lortu zituzten. Junior mailan, Markel Agirrek lehenengo postua lortu zuen eta Iraitz Artola hirugarren izan zen. Kadeteen mailan, berriz, Leire Fernandezek eta Markel Cestafek brontzezko domina lortu zuten; hirugarren gelditu ziren biak. Beteranoetan, Iñaki Gallastegik hirugarren postua lortu zuen. Taldeka hirugarren tokian gelditu ziren Beti-Bustikoak, eta, azkenik, patruiletan zilarrezko domina lortu zuten

Beti-Bustikoek izango duten hurrengo norgehiagoka Espainiako txapelketa izango da. Hain zuzen, Orthezen (Frantzia) jokatu da, uztailaren 24an eta 25ean. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan aritu diren guztiak joango dira Orthezera ere.

*Hurrengo proba
Espainiako
txapelketa izango
dute Beti-Bustikoek,
Orthezen*



Leire Fernandez (erdian) lehenengoa izan zen Euskadiko txapelketan.

FOTOKIROLA



Peña Athleticen denboraldia agurtu zuten San Martzialen

Ohikoa denez, aurtengo denboraldia agurtzeko Peña Athleticen kideak San Martzialen elkartu ziren joan den ekainaren 5ean. Giro ezin hobean 42 lagun izan ziren, trikitilarien laguntzarekin eta guzti. Lagunartean ederto bazkaldu eta gero, arratsaldean neska-mutikoendako jolasak eta beste hainbat ekitaldi izan zituzten. Normala denez, kolore zuri-gorriak izan ziren nagusi San Martzialen. Peña Athleticen bi irteera egin dituzte amaitu berri den denboraldian: Valladolidera eta San Mamesera (Albaceteren aurkako partidura), hain zuzen ere.

Hilariorik gortak utzitako argazkian, Peña Athleticen kideak. Datorren denboraldian Athleticen UEFA jokatu duela-eta, harro daude herriko Athleticen.


Udaberri Txapelketako finalak jokatu dituzte gaur

USOA AGIRRE

Begarako Udaberri Txapelketako finalak izango dira gaur arratsaldean pilotalekuan, 19:00etan hasita. Bergara Kirol Elkarteak pilota saileko gaztetxoak aritu dira asteotan Udaberriko Txapelketa jokatzeko; benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako pilotariak.

Zazpi partidua jokatu dituzte guztira: Benjamin C mailan, Plazaola-Ruiz de Larramendik Irizar-Retolazaren aurka jokatu-

ko dute; benjamin D mailan, Zulueta-Herranek Aristi-Valgañonen aurka; benjamin A mailan, Taboada-San Josek Berasategi-Arregiren aurka jokatu dute. Alebin B mailan, Zabaleta-Etxabe Igartua-Gallastegiren aurka arituko dira; alebin A mailan, Ugarte-Badiola Eguren-Ibargurenaren aurka. Infantil mailan, berriz, Urrutia-Igartua Rezusta anaien aurka arituko dira. Azkenik, kadete mailan, lau terdiaren barruan jokatu da gaurko finala.



Julen Eguren eta Urki Ibarguren osatutako bikotea izango da finalean.

TXIRRINDULARITZA

Unai Arantzabal bigarren izan zen Euskadiko erlojupeko txapelketan

Gipuzkoako erlojupeko txapelduna da, eta beste proba batzuk ere irabazi ditu aurten

USOA AGIRRE

Unai Arantzabal denboraldi bikaina egiten ari da. Gipuzkoako erlojupeko txapelduna dugu gazte mailan eta joan den astean bigarren egin zuen Euskadiko erlojupeko txapelketan. Gustura dago bergarra emaitzekin, eta aurrera egiteko gogo handiz dago.

Arantzabal Euskadiko erlojupeko txapeldunordea da joan den astea ezker. Izarran (Araba) jokatu zuten proban, gazte mailan bigarren izan zen Unai Arantzabal, Egoitz Garcia bizkaitarraren atzetik. Proba gogorra izan zela aitortu digu Arantzabalek: "Ibilbideak nahiko aldapa zeukan eta haize handia zebilen. Hala ere, ez nuen espero hain ondo bukatzea proba". Izan ere, aste guztian ondo deskantsatu gabe ibili da, selektibitateko prestatzen aritu da. Orain, gustura dago lortutako garaipenekin.

Erlojupean Gipuzkoako txapeldun eta Euskadiko txapeldunorde dugu Arantzabal, baina bestelako probetan ere erakutsi du sasoi onean dagoela. Azpeitiko San Jose saria irabazi zuen martxoaren 19an, eta Seguran, Santa Kruz proban gailendu zen maiatzaren 2an. Zumarragako Antiguako igoeran ere bigarren egin zuen maiatzaren 9an eta Legorretan jokaturako proba hirugarren postuan amaitu zuen apirilaren 14an. Hala ere, erlojupeko probak ditu gustukoen Arantzabalek: "Gustatu egiten zait erlojupean aritzea, ahalik eta denbora laburrenean ibilbidea amaitzea". Orain, Gipuzkoako Itzulian zerbait lortzea espero du; gaur hasiko da lau eguneko proba. Datorren urtean amateur mailan arituko da Arantzabal,



Datorren urtean amateur mailan arituko da Arantzabal.

peko probak ditu gustukoen Arantzabalek: "Gustatu egiten zait erlojupean aritzea, ahalik eta denbora laburrenean ibilbidea amaitzea". Orain, Gipuzkoako Itzulian zerbait lortzea espero du; gaur hasiko da lau eguneko proba. Datorren urtean amateur mailan arituko da Arantzabal,

eta txirrindularitzan jarraitzeko gogo handiz dagoela esan digu.

SAN ANTONIOKO PROBA

Joan den zapatuan jokatu zen Honorio Agirregabiria txirrindulari sariketa Bergaran, San Antonio auzoko jaiak zirela eta. Kaiku taldeko Ander Iradi hernaniarrak irabazi zuen lasterketa eta Joseba Muguruza izan zen bergarar onena, 24. postuan. Kadete mailako 145 txirrindularik hartu zuten parte San Antonio Sarian. Bestalde, egun berean Eibarren izan zuten proba gazte mailakoek: Egoitz Arantzadi, Gurutz Larrea, Unai Arantzabal eta Ander Nafarrete izan ziren Eibarren.

Gipuzkoako Itzulian zerbait lortzea espero du; gaur hasiko da lau eguneko proba

FOTOKIROLA



Agustin Arantzabal, Zaragozara

Agustin Arantzabal bergarar jokalaria Zaragoza futbol taldean jokatu du datozen bi denboraldietan. Hirugarren bat jokatzeko aukera ere jasotzen da sinatu berri duen kontratuan. Martitzenean bertan aurkeztu zuen Zaragozak bere azken fitxaketa, La Romareda futbol zelaian.

Zaragozak milioi bat euro ordaindu beharko dio Realari Arantzabal fitxatzeagatik; kopuru horren %10 Bergara Keri dagokio, Agustinek, txikitik, Bergaran jokatu zuelako. Arantzabalek hamaika urte eman ditu Realeko lehen taldean, 1993ko otsailean debuta egin zuenetik. Edoze-lan ere, ibilbide osoa txuri-urdinekin eman ondoren, Reala uzteko erabakia hartu zuen maiatzean./E.M.

A Ze Flaxak Errotagaini 4-3 irabazi zion ligako finalean

E.M.

A Ze Flaxa taldeak irabazi zuen Labegaraletako Futbito Txapelketako ligako finala domekan, Errotagain taldeari 4-3 irabazita. Partidu lehiatsua izan zen eta bi taldeek denboraldi osoan zehar erakutsitako maila azaldu zuten finalean ere. Esan dugun moduan, A Ze Flaxak eskuratu zuen txapeldunen trofeoa. Astebete lehenago kopako finala galdu zuten Pirulotarrak Arrasateko taldearen aurka (1-4), baina domeka eguerdian ez zuten hutsik egin.

Txapeldunen aldetik, Juantxo Izuskiza (bi gol) eta Patxi Vallejo izan genituen golegileak. Laugarrena Errotagaineko jokalaria batek egin zuen, bere atean. Errotagainen hiru golak, berriz, Jose Mari Romerok egin zituen. Gol politak ikusi ahal izan ziren domekako finalean.

Kopa eta ligako txapeldunek Superkopako finala jokatu dute. San Juanen ondoren jokatuko da finala, ziurrenik. Beraz, A Ze Flaxa eta Pirulotarrak aurrez aurre izango dira berriz kopako finalean bezala.



Argazkian, A Ze Flaxa, ligako txapelduna.

PESCA

GIMNASIA ERRITMIKOA

Ariznoako neskek lau domina lortu zituzten Hernanin jokatu zen Euskadiko Txapelketan

Kadeteetan Irati Arteaga bigarren izan zen eta Eider Carrasco hirugarren. Gazte mailan, berriz, Maddalen Legorburu antzuolarrak urrezko domina lortu zuen eta Virginia Odriozolak zilarrezkoa. Bestalde, Ariznoa Gimnasia taldeak kurtso amaierako erakustaldia egingo du gaur, 18:00etan, Labegaraletako kiroldegian.

TXIRRINDULARITZA

Bergarako zikloturista elkarteak Zallara irteera egingo dute uztailaren 10ean

Bergaratik Zallara joango dira; 80 kilometro guztira. Bidean hamarretakoa eta bazkaria egingo dituzte, eta itzulera autobusean egingo dute. Uztailaren 3a baino lehen eman behar da izena irteeran parte hartzeko. Informazio gehiagorako edo izena emateko Ciclos i2ra edo Biciprecision Igartua dendetara jo dezakezue.

IPINTZAKO TXAPELKETA

EGUBAKOITZA, 18 (SENIOR NESKAK)

20:00: Plaut - Pentol's Team
20:00: Baztangak - Ou Pitxu Ou!
21:00: Antzuola - A Willy-Willy
21:00: Epa Gindis - Ogiuzun

ZAPATUA, 19 (SENIOR MUTILAK)

09:30: Txokokuak - Angiola
10:30: Lacor-Arloteak - Ska-Libur

ASTELEHENA, 21 (SENIOR MUTILAK)

19:00: Ilari - Txokokuak
20:00: Ska-Libur - Gorriones
21:00: Beti K.A.B. - Bildurbarek Opel-Lam

MARTITZENA, 22 (SENIOR MUTILAK)

19:00: The Parpol - Komando Torrekua
20:00: Angiola - La Juve
21:00: A Ze Flaxa-Guipuzcoana - Lacor-Arlotek

EGUAZTENA, 23 (SENIOR NESKAK)

20:00: A Willy-Willy - Epa Gindis
20:00: Ou Pitxu Ou! - Antzuola
21:00: Pentol's Team - Baztangak
21:00: Potzu Ta Zapaburuak - Plaut

EGUENA, 24 (BETERANOAK)

19:30: Ezinleike - Bildurbarek Opel-Lam
19:30: Txipiron - Guipuzcoana
20:30: Canalejas - Mongatxurak
20:30: A Ze Flaxa - Arloteak

eguzkitako betaurreko graduatuak

65€

bonardi

mugitzea gustatzen zaidalako

MULTIOPTICAS

LEHENA ZERBITZU OPTIKOETAN

Esleitzen, Bonardi armazondako lente monokularrak, marroak edo grisak (ez degradatuak) +5 ast. +2 al. Berria, 04/06/01 - 04/07/01.

Ibargarai 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

J. Carlos Guerra 1
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

J.M. Barandiaran Enp.
Tel.: 943 88 99 88
ORDIZIA

Bidebarrieta 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

Esmalteria Plaza
Tel.: 943 51 78 11
ERRENERIA

Mendibil M. G.
Tel.: 943 63 99 01
IRUN

San Frantzisko 23
Tel. 943 69 84 70
TOLOSA

Azkarate eta Ardatza: arotz lanetan behar duzun guztia



Jantzitegi apal tolesgarriekin



Parket flotatzailea



Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak

Neurrira ebakitako tableroak • Apalak • Kajoiak • Zokaloak
Moldurak, sarrailak • Manilak • Egurrezko objetuen pintaketa



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria 19, B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
610 884 020



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA





2004ko ekainaren 18a

Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 24. alia

IEPA LAGUNOK!

Zelako gutxi falta dan oporrak ailegatzeko!! Laister eskolari agur esan eta oporrei kaixo esango dotsagu. Eta zuek, zer nahixago dozue eskolia edo oporrak? Bixetan be oso ondo ibiltzen garela esan geinke. Orain irakurri Apatxi eta ondo pasau!!



URREZKO ARAUAK

- Finala hemezazpi eta hamahiru irabazi giñuan.
- Oporretan hondartzara juan geinke.



- ~~- Finala hemezazpi hamahiru irabazi giñuan.~~
- ~~- Oporretan hondartzara juan leike degu.~~



AURREKO ASTEKO IRABAZLIA



ISMENE
GOROSTIDI
Aranzadi ikastola
6 urte

JUAN ZAN ASTEKO LEHIAKETAKO ERANTZUN ZUZENAK:

1. G 2. A 3. F 4. B 5. D 6. E

IPUINA "Tomas eta eskalia"

Gaurkuan Tomas astuaren historixia kontatu bihar dotsuet. Behin, Tomas bedarra eroatera jua zan Isidroren zelaira. Gosetuta zeguan, goiz osuan bere txabolia konpontzen ibilli zan eta. Bidian zihoiala Idoia bere lagunarekin egin zeban topo eta elkarrekin jua ziren, bide guztian berriketa baten. Tomasek nora zihoiari kontatu zotsan Idoiari. Gaiñera, azaldu zotsan sarri juaten zala bedarra eroatera, bere zelakua sikatuta zeguanian.



Idoiak, berriz, kontatu zotsan sari-banaketa batera zihoiala, izan be, aurreko egunian eskubaloiko partidua jokatu zeben eta txapeldun gelditu ziran, hamazazpi eta hamahiru irabazi eta gero.

Ordu erdiren bat egingo zeben Isidroren zelaira aillegatu arte, eta aillegatu ziranian, agurtzera zihoiatzela, dirurik ez zeukala konturatu zan Tomas. Nahigabiaren nahigabez arrantzaka hasi zan. Idoia larritu egin zan eta inguruan zeguan jendiari diru-eske hasi jakon. Inork ez zotsan kasurik egitten eskale batengana aillegatu zan arte. Eskalia be eskian zebillen. Idoiak Tomas gaixuaren kasua azaldu zotsanian, eskaliak, borondate onez, egunian lortutako txanpon batzuk emon zotsan Idoiari, Tomasek bedarra erosteko bihar zeban dirua, hain zuzen be. Idoia Tomasengana jua zan antxintxika eta han topau zeban oindio be arrantza-zotinka. Dirua lortu zebala esan zotsan Tomasi, eskaliak emon zotsala, eta Tomas oso harrittuta gelditu zan. Bedarra erosi ondoren eskaliagana jua ziran Tomas eta Idoia, eta Tomasi gustoko gertau jakon. Egun hartan janarixa emon baldin bazotsan beste batzuetan be emongo zotsala pentsatu zeban, eta hala esan zotsan eskaliari:



- Zurekin bizi nahi dot. Nahi baldin badozu, nik herriz herri eruango zaitut eta zure gauza danak be nik eruango dotsut.

Eskalia oso harrittuta gelditu zan, baiña ez zeban inongo zalantzarik eduki, bazekixen Tomas moduko asto batekin askoz hobeto biziko zala eta. Bere lanaren truke egunero janarixa emongo zotsala pentsatu zeban eta horixe erantzun zotsan astuari:

- Ondo da. Zure lanaren truke nik jatekua emongo dotsut egunero. Horixe zan Tomasek entzun nahi zebana eta oso pozik gelditu zan. Baitta Idoia be. Ordutik aurrera oso ondo bizi dira bixak. Biharbada egunen baten Bergarara be etorriko dira. Asto batekin doian eskale bat ikusten baldin badozue, jua zaittie beragana eta ikusiko dozue zelako jatorra dan!

ELKARRIZKETA

ASIER ALTUNA 'KIXI'/ZINEMAGILEA

“Gure film laburren estiloa izango du ‘Aupa Etxebeste’-k; umorerik ez da falta izango”

EDU MENDIBIL

Telmo Esnal lagunarekin batera, udan *Aupa Etxebeste* izenburuko film luzea egiten hasiko da Asier Altuna *Kixi* zinemagile bergararra.

Zelako filma izango da *Aupa Etxebeste*?

Komedia izango da, Etxebestearren ingurukoa, hain zuzen ere. Ramon Agirre aktoreak Patricio Etxebesteren papera egingo du: herriko alkate izateko aurkeztuko da, eta bere lagun batek prestatuko dio hauteskunde kanpaina. Eta, hain zuzen, *Aupa Etxebeste* izango da aukeratutako eslogana. Gure aurretiko film laburren estiloko filma izango da. Ez da aldrebeskeria hutsa izango. Benetako istorio batetik sor daitezkeen egoera bitxiak jorratu nahi ditugu.

Nortzuk izango dira aktoreak? Noiz hasiko zarete filmaketarekin?

Agirrerekin batera, Elena Irueta (emaztearen paperean), Iban Garate (semea) eta Pako Sagarzazu (aitona) egongo dira aktoreen zerrendan, besteak beste. Filmaketa abuztuaren 16an hasi nahi dugu. Hurrengo asteotan kokalekuak topatzen hasiko gara. Fil-

meko zatirik handiena etxe barruan girotuta badago ere, herriko plaza dotore bat ere behar dugu, eta Hernani, Tolosa eta Bergarakoaren artean aukeratu dugu ziurrenik. Hala ere, produkzio arazoak direla eta, Donostiatik gertu egin nahi dugu errodajea, han kokatu baita puntu nagusia, nolabait esatearren. 40 laguneko taldea ibiliko gara.

Euskaraz film luze gutxi egiten da...

Ia-ia ezinezkoa da gaur egun euskaraz film bat egitea. Horrek muga batzuk dauzka filma merkaturatzeko orduan, baina argi geneukan euskarazko filma egin nahi genuela. Film umila eta txikia izango da gurea, ahalik eta ikusle gehien lortzeko asmoa baztertu barik.

Aspalditik zabiltzate filma egiteko asmoarekin. Prozesu horretan zer izaten da zailena?

Beste lan batzuetan ibili garen

“Ia-ia ezinezkoa da euskaraz film bat egitea, baina argi geneukan euskaraz lan egitea”


arren, bospasei urte ibili gara gidoiarekin bueltaka. Behin gidoia bukatuta, martxan hastea izaten da zailena.

Zeintzuk izango dira ekoizleak? Noiz helduko da filma aretoetara?

Bi ekoizle izango ditugu, Txepi Lara nafarra alde batetik eta Irusoin etxea bestetik. Horrez gain, ETB, Jaurilaritza eta Canal Plusen laguntza izango dugu. Aurrekontua milioi bat euro inguru da. Bestalde, ez dakigu aretoetan noiz ikusi ahal izango den filma, banatzailerik ez dugulako oraindik. Lan ona egiten badugu, ez dut uste aparteko arazorik egongo denik. Hasiera batean zazpi astean egingo dugu filmaketa, eta Gabonak alderako-edo estreinatu nahiko genuke.

Zuzendari lanetan bi lagun aritzeak zein abantaila dauka?

Beste lagun bat alboan izateak lasaitasuna ematen dízu, nik uste. Batzuetan zaila da biok ados jartzea, baina komunikazio ona dago gure artean, eta zenbaitetan egoa poltsikoan gorde beharra dago. Lanean elkarrekin ondo pasatzen dugu Telmok eta biok. Hark zuzendari laguntzaile moduan esperientzia luzea dauka; ni gidoigile lanetan gehiago ibilitakoa naiz. Elkarren osagarri onak garela esango nuke.



ARTIBOIA

**Josean San Torcuatoren erakusketa Nahikari tabernan**

Josean San Torcuato bergararraren erakusketa zabaldu zuten aurreko egubakoitzean Nahikarin. San Torcuatok lumatxoak egindako lanak eta olioak (17 artelan guztira) zintzilikatu ditu Masterekako Nahikari tabernan. Herriko hainbat txoko eta Gipuzkoako paisaiak landu ditu. Erakusketa ekainaren amaierara arte izango da ikusgai.

KULTURAPILULAK

Gaztetxearen 4. urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi izango dira aste bukaeran

Gaztetxearen 4. urteurrenako ospakizunekin jarraituz, gaur, egubakoitza, Jon Plazaolaren *Majia ja ja* antzezlan izango da, 22:30ean, gaztetxean. Bihar, berriz, bazkaria izango da, txapelketak jarraian eta gauean, herriko hainbat talderekin musika jaialdia, 21:30ean. Azkenik, domekan, *Noviembre* filma eskainiko dute, 19:30ean.

Life of Agony eta Marillion taldeen kontzertuak aste bukaeran Jam aretoan

Life of Agony eta Hedtrip taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Jam-en, 21:30ean. Sarrerak 18 eurotan salgai daude. Bestalde, bihar, zapatua, Marillion taldeak joko du Amillagako aretoan. Beraien aurretik Gazpacho talde norvegiarraren emeraldia izango da. Sarrerak 24 euroren truke eskura daitezke.

Manu Muniategiandikoetxearen margolanak Bilboko Rekalde aretoan, hilaren 27ra arte

Manu Muniategiandikoetxea margolari bergararraren erakusketa ikusgai dago Bilboko Rekalde aretoan, ekainaren 27ra arte. *Ni ez naiz hemengoa* izenburupean, Muniategiandikoetxeak azken hiru urteotan egindako hainbat lan bildu ditu, marrazkiak, eskulturrak eta formatu handiko lanak tartean.

ZAHARRAK BERRI/ Patxi Azkaratek zuzendutako taldean 50 lagun inguru dira; San Pedro egunean, ekainaren 29an, agurtuko dute aurtengo ikasturtea

San Joxepeko abesbatzak emanaldia egingo du datorren egunean San Juan auzoan

EDU MENDIBIL

San Joxepeko abesbatzak emanaldia egingo du datorren egunean, ekainaren 24an, San Juan auzoan. Egurdiko 12etan meza izango da eta jarraian salda eta txorizoa banatuko dute. Erretiratuek hainbat kantu eskainiko dituzte San Juango ermitan.

San Joxepeko abesbatzak emanaldi dezente egin ditu urtean zehar. Azkenak, Labegaraietan eta San Antoniko jaietan. 87 urteko bergararrei egindako omenaldian ere hartu zuten parte. Datorren egunean, berriz, San Juan auzoan izango da Patxi Azkaratek zuzendutako abesbatza. Zortzi bat kantu eskainiko dituzte, *Festara*, *El tilo* eta *Kuku* tartean.

Patxi Azkaratek hiru bat urte daramatza abesbatzako zuzendari lanetan. Gaur egun 50 erretiratu inguruk dihardute koroan. Astean behin entseatzeko dute, martitzen arratsaldeetan, erretiratuen egoitzan. Azkaratek zera dio: "ni oso gustura nabil beraie-

kin, ederto pasatzen dugu. Emanaldietan primeran abesten dute, baina bazkariren bat tartean badago, hobeto oraindik. Umorea soberan daukate, eta primerako giroa dago taldean".

San Pedro egunean, ekainaren 29an, egingo dute ikasturteko azken entsegua, eta jarraian bazkaria egingo dute abeslari beterranoek. Irailean helduko diete berriz entseguei.

SAN MARTZIALGO LETANIA

Bestalde, San Martzial egunean, letanian parte hartzeko dei egin dute erretiratuek. Goizeko zazpi eta erdietan hasiko da igoera, letania erreztatuz, eta ohikoa denez San Martzialera heldutakoan meza izango da hango ermitan. Jarraian, mezaren ostean, San Joxepeko kideek prestatutako txokolatea banatuko da. Joan den urtean 300 lagun inguru elkartu ziren San Martzialen.

Saso batean bazkaria egiten zuten herriko erretiratuek San Martzial eguna ospatzeko, baina joan den urtea ezkerrean bazkaltzeari laga diote.



San Joxepeko abesbatza X lagunek osatzen dute gaur egun.

ARTXIBOA



Kantabriara, 54 lagun

Datorren astean, San Joxepe elkartekoak Kantabriara joango dira. 54 lagunek eman dute irteeran parte hartzeko izena. Bi eguneko irteera prestatu dute herriko erretiratuek: hain zuzen, ekainaren 23an Santander bisitatuko dute; besteak beste, hango alde zaharra eta Magdalena jauregia (irudian) ikustera joango dira. Santanderren gaua igaro ondoren, San Juan egunean Santillana del Mar eta Altamirako kobak bisitatuko dituzte. Handik Bergarara itzuliko dira.

LABUR

Uztailaren 1erako iragarritako irteera, bertan behera

Erretiratuek uztailaren 1ean egin beharreko irteera bertan behera geratu da. Egun horretan Zarautzera, Santa Barbarara, Garateko gainera eta Zumaiara joatekoak ziren San Joxepeko kideak. Hala ere, aipatutako irteera ez egi- tea erabaki du zuzendaritzak.

Ziurrenik udako oporrak hartu baino lehen, azken irteera Covarrubias eta Domingo de Silosera egingo dute, uztail-lean. Hala ere, data zehazte- ke daukate oraindik San Joxe- peko kideek.

Ganbara

TABERNA


Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g.
BERGARA
Tel.: 943 76 55 75



IRRINTZI
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26



JAUJA
KIROLAK

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Balkoi, farola eta irudi hauek kale berean daude; non?

GALDEDEBALDE

1.

Zenbat diru emango du Bergarako udalak nazioarteko laguntza proiektutarako?

- A/ 78.400 euro.
- B/ 63.300 euro.
- C/ 45.500 euro.

2.

Noiz egin zuen debuta Agustin Aranzabalek Realarekin?

- A/ 1990ean.
- B/ 1993an.
- C/ 1991n.

3.

Norekin batera filmatuko du Asier Altunak *Aupa Etxebeste* luzemetraia?

- A/ Jon Andueza.
- B/ Ane Muñoz.
- C/ Telmo Esnal.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JAVIER IGARZArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Javier!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Mizpildi / Galde debalde: 1-B, 2-A, 3-B.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Danone jogurtak

Zaporedunak, zortziko packa, 125 g

1,44€

240 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!




Olaso dorrea

- Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa **16** urte bete aurretik!
Eta **autoarena** **18** urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O I A

ERRETRATU ZAHARRA

ELGETA

Bolo jokoan Salbador zeharbidean

Kiroldegian dago orain bolatokia, eta zenbait herritarrek maiz jarduten dute bertan jokoan, baita batzuek apustuak egin ere. Baina garai batean Salbador zeharbidean, gaur egun Ozkarbi elkartearen dagoen erai-kinaren atzeko partean, jarduten zuten bolo jokoan herriko gazteek, nahiz eta bolatoki hura estalita ez egon. Lehen bolatokia zegoen lekuan gaur egun etxebizitzak daude.

Elgetarrak ez ezik inguruko herrietatik etorritako bolariak ere ibiltzen ziren bertan 50eko eta 60ko hamarkada bitartean, sasoi hartan bolatoki famatuena baitzen. Asteburuetan elkartzen zen jendea, batik bat, eta diru asko izaten omen zen jokoan.

Argazkian ikusten denez, batzuek jokoan jarduten bazuten ere, beste asko izaten ziren begira, bai bolatoki aldamentik eta baita kaleko beste edozein bazterretatik ere. Plaza aldetik begira eta barrez dauden hainbat lagun ere ikusten dira argazkian.

Hona hemen erretratuan agertzen direnak, ezkerretik eskumara, bolo jokariari begira: Jaime Jimenez, Jose Arantzabal, Migel Oianguren, Luzio Sarasqueta, Felix Irazabal, Jose Antonio Retolatza, Luis Mari Retolatza eta Joakin Atxukarro. Aurrean, ezkerrekin boloa botatzen, berriz, Felix Loidi dago.

Argazkia: Luzio Sarasketa



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

etxalar

kafetegia
kruasantegia

Boni Laskurain 4
BERGARA
943 76 50 68

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tel.: 943 76 23 94 / 943 76 12 65

POL-POL
Taberna

943 76 07 78. Bergara

ARANE
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko ekainaren 18a / 206. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Alardearen gaineko erakusketa asteburuan

AINTZANE IRIZAR

Mairuaren Alardearen Elkarteak eta Udalak erakusketa antolatu dute datozen bi asteburuotarako. Alardearen gaineko erakusketa izango da; hantxe egongo dira ikusgai argazkiak, dokumentuak, jantziak, armak... Olaran etxean izango da erakusketa.

Bihar, zapatua, zabalduko dute Mairuaren Alardearen gaineko erakusketa Olaran etxean, eta zabalik egongo da datozen bi asteburuotan. Zapatueta, 18:30etik 20:00etara; domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

Erakusketa horretan Alardearekin lotutako hainbat material jarriko dute ikusgai: alardeen gaineko informazioa, dokumentuak, argazkiak, bandera, alardeko pertsonaien jantziak... Bideo bat ikusteko aukera ere egongo da, Olaranen bertan.

HELBURUA, ALARDEA INDARTZEA

Maiatzean aurkeztu zuten Mairuaren Alardearen Elkarteak; elkarte horren helburua da Antzuolako jai horri indarra emateko.



ANTZUOLA 1900-1970' LIBURUTIK

Alardeko hainbat argazki zahar ikusteko aukera egongo da erakusketan.

tea. Horretarako, euren zereginetako bat izango da alardea ezaugaraztea, herritarren zein kanpotarren artean. Testuinguru horretan kokatu behar dugu era-

kusketa hori. Bestalde, mahai bat jarriko dute erakusketan bertan, elkarteko kide izan nahi dutenek edo alardean parte hartu nahi dutenek izena eman dezaten.

JAIK

San Joan bezperan, hainbat ospakizun

Eguaztenean, hilak 23, San Joan bezperako ospakizunak izango ditugu herriko plazan, 20:00etatik aurrera. Aurten, berritasun bat izango dugu; izan ere, beste urtetan ez bezala, San Joan sua plazan bertan egingo dute. Udaleko arduradunen helburua da, San Joan sua herritarrengana hurbiltzea eta ohitura horri indarra ematea. Azkeneko urteotan ere egin izan dute San Joan sua, baina ez plazan; iaz, esaterako, Sagasti auzoko zelaian egin zuten.

Suarekin batera, beste hainbat ekitaldi ere egongo da. Ohiko moduan, arbola jasoko dute; ondoren, dantza saioa izango dugu. Bestalde, lora lehiaketako sariak banatuko dituzte.

UZARRAGAKO OSPAKIZUNAK

Uzarraga auzoan, berriz, hurrengo domekan, hilak 27, ospatuko dituzte San Joanak. 10:00etan izango da meza nagusia; ondoren, dantza saioa izango da, baita lurcha ere.



San Joan sua plazan egingo dute aurten.

HERRITARREN HITZA / Jone Lete • Ikaslea

Auzokideei gonbita

Ekainean hasi eta irailera arte Euskal Herriko herrietan eta auzoetan ez da festarik falta izango. Euskaldunok beti izan dugu parranda zale fama eta urte sasoi honetan garbi ikusten da hori. Gure herrian ere ekaina eta uztaila izaten dira jai gehien ospatzen ditugun hilabeteak.

Ekainean, lehenengo Ondarreko jaiak ospatzen dituzte eta ondoren etortzen dira Kalebarrengo jaiak, San Martzialgoak, herriko jai nagusiak...

Jendea jai hauen zain egoten da, eta ni Kalebarrengo

auzokidea naizen aldetik, San Pedro jai hauei buruz pentsatzen dudana esateko aprobetxatuko dut.

Urtetan izan naiz jai batzordeko kidea eta uste dut badaukadala zerbait esateko.

Normalean, giro polita egoten da, eta ohitura bihurtu den sagar dantzan jende askok parte hartzen du. Auzo afariko partaidetza, berriz, azkeneko urteotan jaitzi egin da, urtez urte jende



“Aspaldiko urteotan ez da jende berririk sartu Kalebarrengo Jai Batzordean”

gutxiago etortzen da, baina guk lanean jarraituko dugu. Hala eta guztiz ere, esan nahiko nuke jende gutxi dagoela lan egiteko prest, urtero berdinak ibiltzen garela lanean eta jai on batzuk nahi baldin baditugu, beharrezkoa dela auzokideen laguntza. Hiru egunetako jaiak antolatze

eta ondo irteteko, aurretik, ezkutuan, lan handia egin behar izaten da, eta lan hori

sarritan ez da ikusten eta ez da baloratzen.

Aspaldiko urteetan Kalebarrengo Jai Batzordean (K.J.B.) ez da jende berririk sartu eta ideia berriak, jende gaztea, batzordekide berriak, falta zaizkigu. Aspaldiko urteotan ideia falta sumatu dugu.

Beraz, Kalebarrengo Jai Batzordearen izenean, auzoko gazte guztiak animatu nahi ditugu auzoko jaien antolakuntzan parte hartzera eta baita egiten diren ekintzetan parte hartzera ere. Ateak zabalik daude eta pozik hartuko ditugu haize fresko eta berriak batzordean.

LABUR

Kadete mailako bikotea, Debarroko finalaren atarian

Debarroko pilota txapelketan aurrera jarraitzen dute kadeteek. Debagoienean lehenengo geratu ziren eta finalerdietarako sailkatu. Eibarren aurka jokatu zuten lehenengo partidua Antzuolan; 22 eta 14 irabazi zuten. Oraingo asteburuan jokatu dute itzuliko partidua, Eibarren.

Bestalde, Aitor Mendizabalek egubakoitz gauean jokatu zuen ETB Kantxako final-laurdenetako partidua; galdutegi egin zuen eta txapelketatik kanpo geratu da.

ELKARRIZKETA

GORETTI FERNANDEZ/GAZTETXOEN LOKALEKO ARDURADUNA

"Datozen asteotarako hainbat ekintza antolatu ditugu gaztetxoekin batera"

AI.
Maiatzean zabaldu zuten gaztetxoendako lokala Errekalden. Orduetik, herriko hainbat gaztetxok dihardute hantxe, ekintzak antolatzen eta parte hartzen. Hiru begirale dituzte, Goretti Fernandez tartean.

Zer moduz doa lokalaren funtzionamendua?

Pixkanaka-pixkanaka, geroago eta hobeto doa. Gaztetxoaren artean ahoz aho zabaltzen ibili gara lokalaren gaineko informazioa; baina, egia esan, ez da erraza. Gurasoekin batzarra ere egin genuen, lokalaren gaineko informazioa emateko.

Zein adinetako gazteei dago zuzenduta gaztetxoaren lokal hau?

Berez, 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek; bi urteko aldea besterik ez duten arren, 12 urtekoek nahi dutena eta 14 urtekoek nahi dutena ez da berdina, bakoitzak bere beharrak dauzka. Nagusienek, batez ere, egoteko toki baten beharra dute; gaztetxoek, berriz, prest daude ekintzak antolatzeko eta ekintza horietan parte hartzeko. Gainera, gaztetxo askoren asmoa da gaztetxea zabaltzen dutenean, hara joatea.

Zela funtzionatzen du lokalak?

Hiru begiralek dihardugu gaztetxoekin lanean. Dena dela, eurak dira ekintzak proposatzen dituztenak, eta baita ekintza horiek antolatzen dituztenak ere. Gure lana da eurei laguntzea.

Zapatuetan, 16:00etatik 20:00etara zabaltzen dugu; gauez ez dugu oraindik zabaltzen, zarataren neurketen emaitzen zain gaudelako; baina, zabaltzen dugunean, 21:00etatik 23:00etara egongo da zabalik; domeketan, berriz, 16:00etatik 21:00etara.

Datozen asteotarako zer asmo dituzue?

Esan bezala, gure helburua da gaztetxoek eurek egitea propo-



AI.

"Gaztetxoak eurak dira ekintzak proposatu eta antolatzen dituztenak"

samenak, eta ez guk esatea zer egin behar duten. Gauzak horrela, datorren hilabeterako plangintza bat egiten dugu gaztetxoekin batera. Alde batetik, herrian antolatzen diren jai eta ekitaldietan parte hartzea nahi dugu, eta bestetik, geuk ere ekintzak

"Asteburuan Urretxuko igerilekura eta Usakora joango gara"

antolatzea. Datozen asteotarako, honakoak antolatu ditugu: oraingo zapatuan Urretxuko igerilekura joango gara eta domekan Usakora, bizikletaz; Kalebarrenge eta San Martzialgo jaietara ere joango gara; uztailaren 10ean eta 11n, Elosuko aterpetxera...

HAUTESKUNDEAK

HZk EAJk baino boto gehiago lortu zuen

AINTZANE IRIZAR

Europa osoan gertatu zen bezala, abstentzioa izan zen Antzuolan ere Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetako protagonista nagusia. Botoa emateko eskubidea zuten 1.654 antzuolarretatik 854 besterik ez ziren joan hauteskontzietara. %48,34, hain zuzen ere, izan zen abstentzioa Antzuolan. Hala ere, Debagoieneko herri gehienek izan zuten Antzuolak baino abstentzio handiagoa.

Antzuola izan zen Herritarren Zerrendak boto gehien eskuratu zuen Debagoieneko herri bakarra. 291 herritarrek eman zion botoa HZri; EAJk 241 boto eskuratu zituen; EA izan zen hurrengo boto gehien lortu zuena, 120, hain zuzen ere; PSOEk 115 lortu zituen, PPK 34, Aralarrek 31 eta Ezker Batuak 11.

Datuak

	2004.06.13	2004.03.14	
	Europa	Espainia	Aldea
EAJ	%28,2	%30,7	-%2,5
PSOE	%13,4	%13,8	-%0,4
EA	%14,0	%11,7	-%2,3
PP	%3,9	%4,0	-%0,1
ARALAR	%3,6	%13,4	-%9,8
EB	%.1,3	%2,7	-%1,4
Baliogab.	%34,3	%22,0	-%12,3
Absten.	%48,3	%20,6	-%27,7

Galeuska koalizioaren barruan aurkeztu da EAJ. / EA, berriz, Herrien Europaren Alde koalizioaren barruan.



San Martzialgo pitxarra, Olleriasen

Euskal Buztingintza Museoan dago San Martzialgo pitxarra, Araban, Elosu herriko Ollerias auzoan, hain justu. Kofradien baxeren gaineko erakusketa jarri dute hantxe, eta zabalik egongo da Gabonak arte. Lizarragako auzotarrek urtean behin bazkari bat egiten zuten, eta hantxe erabiltzen zuten pitxarra, ardoa banatzeko. /A.I.

DEKORAZIOA
ABAD
PINTURAK
ANTZUOLA
PAPER PINTATUAK

Jose Gomez Abad

Errekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak eta edariak

Tel.: 943 76 60 94
ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko ekainaren 18a / 190. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldegia • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95



ARTXIBOA

Multikirol ikastaroan hainbat kirol ezagutzeko aukera eskainiko zaie 6 eta 12 urte artekoek.

Uda Kanpainan izena emateko epea zabalik

IRATI AGIRREAZALDEGI

Uztailaren 5ean hasi eta 23ra bitartean izango da aurtengo Uda Kanpaina eta jadanik izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 28ra arte. Herriko ume zein helduek kirola egiteko makina bat aukera izango dute udako egunak aprobetxatzuz.

Udalak herritarrek udan kirola egitera gonbidatu eta animatu nahi ditu, eta horretarako, aurreko urteetan bezala, Uda Kanpaina antolatu du. Haur, gazte zein helduendako makina bat aukera eskainiko dituzte.

Uztailaren 5ean hasi eta 23ra bitartean iraungo du egitasmoak, eta eskaintza zabala izango da. Txikienek, 3 eta 6 urte artekoek, asteko egunetan aisialdi taldean jardun ahal izango dute eskola zaharretan.

Multikirola, patinajea eta aerobika egiteko aukera edukiko dutenak 6 eta 12 urte bitarteko eskola umeak dira. Multikirola aukeratzen dutenak asteko egun guztietan goizetan elkartuko dira kiroldegian. Patinajea eta aerobik

saioak, berriz, martitzen eta egue-netan izango dira, haiek ere kiroldegian.

Bestalde, 8 eta 14 urte artekoek Oñatin piraguismo ikastaroa egiteko aukera dute astelehen eta eguaztenetan.

Prezioei dagokienez ere badira ezberdintasunak: aisialdiokoek 60 euro ordaindu beharko dituzte; multikiroletakoek 40 euro; aerobik taldekoek 13,50 euro; patinajeokoek 15 euro eta piraguismoa egiteko 18 euro.

GAZTEAK ETA HELDUAK

Haiek umeendako ikastaroak badira ere, gazte eta helduei ere eskainiko dizkie udarako hainbat kirol ikastaro Udalak: borroka arteak, tai-chia eta patinajea, hain zuzen ere.

Borroka arteak ikasteko, astelehen eta eguaztenetan kiroldegian izango da hitzordua eta 15 urtetik gorako elgetarrek hartu ahal izango dute parte, eta ikastaroaren prezioa 12 euro da.

Honetaz gain, 16 urtetik gorakoek martitzen eta egue-netan tachi ikastaroak izango dituzte aukeran 16 euroren truke.

Azkenik, patinajea egiteko modua zapatuetan izango dute kiroldegian, 16 urtetik gorakoek, 15 euro ordainduta.

Prezioak horiek izango dira, baina baliteke ikastaroren batean ordutegia edo egunak aldatzea azken unean.

Ikastaro hauetakoren batean izena eman nahi duten herritarrek bakoitzari dagokion diru sarrera egin beharko dute Kutxan, jarduera eta izen-abizenak zehaztuz. Ondoren, udaletxean izen-emate orria bete eta bankuko ziurtagiria eraman beharko da bertara. Izena emateko azken eguna ekainaren 28a da.

Bestalde, Udal Kirol Zerbitzutik jakinarazi digute elgetarrek Debagoieneko beste herri batzuetako udako ikastaroetan parte hartzeko aukera dutela.

Gazte eta helduendako patinaje, tai-chi eta borroka arteen eskaintza izango da

LABUR

Domekan Ozkarbin kobratuko dituzte Erretiratuen Elkarteko urteko kuotak

Erretiratuen Elkarteko aurtengo kuota zazpi euro da, eta ordainketak domekan, ekainaren 20an, egin ahal izango dira 11:00etatik 13:00etara bitartean Ozkarbin. Bestalde, elkartetik jakinarazi dute orain arte podologia zerbitzuaz Migel Elkoro arduratu bada ere, kargua utziko duela; beraz, erretiratuek zuzenean podologoari ordaindu beharko diote zerbitzu bakoitzari dagokion diru kopurua: zortzi euro. Uztailean podologoarekin egon nahi duenak Migel Elkorori abisatu behar dio, eta abuztuan ez dago zerbitzurik.

DJak eta kontzertua zapatuan gaztetxean Hernaniko fantzine baten aldeko jaietan

Bihar zapatua, hilak 19, Hernaniko fantzine baten aldeko jaietan izango da gaztetxean. Fantzine horren azken zenbakia kaleratu berri dute, eta aurkezpen jaietan izango da. Jai girotzeko merienda izango da gaztetxean bertan. Ondoren, 18:00etatik 20:00etara bitartean punk musika jartzen bi DJk jardungo dute. Haien ostean, zazpi talderen kontzertua egongo da: Malas Cartas (Bartzelona), Jonny Gerriwelt (Ondarroa), Nuevo Catecismo Catolico (Donostia), Obligaciones (Gasteiz), Psykaostrops (Ziburu), Deskontrol (Arrasate) eta Afonia (Hernani). Sarrera bost euro da.

Jaietako egueneko herri afarirako txartelak salgai daude herriko tabernetan

Jai batzordeak salgai ipini ditu Azoka Nagusiko jaietan, egue-netan, egingo den afarirako txartelak. Herriko tabernetan erosi ahal izango dira txartelak 15 euroren truke. Herri afaria plazan izango da, eguraldiak laguntzen badu behintzat. Jai batzordekoek, gainera, herritarrei dei egin nahi diete afalaureretik zein afaritara mozorrotuta joateko. Aurtengorako aukeratu duten gaia Elkalde Urruna da. Beraz, Txina eta inguruetan oinarritutako mozorroak gertatu beharko dituzte elgetarrek egun horretarako.

Txapela herriko taldea areto futbol txapelketako final-erdietarako sailkatuta

Bihar, zapatua, jokatuko dira kiroldegi kanpoko kantxan areto futbol txapelketako final-erdiak. Zazpi taldek hasi zuten txapelketa, eta sailkapeneko lehenengo laurak arituko dira jardunaldi honetan. Tartean baita Txapelak Elgetako taldea ere. Orain arte partidua arratsaldean jokatu badira ere final-erdiak goizean izango dira. Lehenengo norgehiagoka Ariñiketan eta Makanaki taldeek jokatu dute 12:00etan eta bigarrena, berriz, Txapela eta Vicios taldeen artekoa izango da. Haiek jokatu erabakiko da zein bi talde pasako diren finalera.

Jendea behar da Umeen Euskal Jaietan Ozkarbin bazkalorduan laguntzeko

Umeen Euskal Jaiak izango da datorren domekan, ekainaren 27an, Elgetan. Kanpotik etorriko diren 120 hurrek herriko etxeetan bazkaltea da antolatzaileen asmoa. Baina haien arduradunei eta txistulariei Ozkarbi elkartearen emango diete jaten. Hori dela eta, antolatzaileek dei egin diete egun horretan bazkaria gertatzen eta zerbitzatzen laguntzeko prest daudenei. Horretarako gertu daudenek Iban Retolatzari eman beharko diote izena edo bestela Ozkarbiko postontzian paper bat laga. Izena emateko azken eguna ekainaren 23a izango da. Izan ere, aurrez komeni da jakitea zenbat lagunek jardungo duten egunean bertan.

ELKARRIZKETA

LUZIO SARASKETA/BOLO JOKALARIA

“Bolari ona izateko artea eta tenplea behar dira”

I.A.

Mutikotan hasi zen Luzio Sarasketa bolo jokoan Txorrobotuko bolatokian, eta gainontzeko bolariak urte hauetan guztietan bolo jokoaren alde berak egindako lana eskertu nahi izan dute omenaldi bat eginda.

Nondik datorkizu boloetarako zaletasuna?

Mutikotan auzoko lagunak elkartzen ginen. Osabak bolok lagatzen zizkigun, eta baserri ondoko bolatokian jarduten genuen. Gero, nagusiagoen bolak batzen ere ibiltzen ginen. Horrela hasi nintzen, eta beti izan dut gustuko. Soldadu egon nintzanean ere, asteburuetan etxera etorrita bolatokira egiten nuen buelta. Gainera, zorzea alde izan dut, eta gaur egun ere egiten dut oraindik bolotan. Kirrol osasuntsua da eta gastu txikia daukana, gainera.

Gipuzkoako Txapelketa amaituta omenaldia egin dizute. Zer sentitu zenuen?

Bolo jokoari eman diodan guztiagatik jaso dut omenaldia, eta pozik nago. Ni beti izan naiz alaia eta bolatokiak girotzen dituen horietakoa, eta horrekin konturatu dira.

Zein duzu bolatokirik gustukoena?

Gaztetan bolatoki askotan ibilitakoa naiz. Elgetan bertan zortzi ere izan dira. Osintxukoak eta Arratekoak sona handia izan dute. Arratekoa zailena zen, baina han hiru txirloak botatzen

“Elgetan bertan zortzi bolatoki ezagututakoa naiz, eta oraingoa ere oso egokia da”

zituena onena zen. Baina Elgetakoa moduko bolatokirik ez dago inon. Jendeak arriskurik gabe ikusteko moduan eginga dago, eta boloa bueltan botatzeko modua ere egoki ipinita. Gainera, aterpean dago.

Zer behar du bolari onak?

Tenplea izatea, eskua nola ipini jakitea, boloa modu kuriosotan botatzea... Sekretu asko ditu bolo jokoak, eta ona izateko artista izan behar da. Gainera, bolotan jokalaria berak ordaintzen du eta ikuskizuna debalde eskaini, eta hori beste inongo kiroltan ez da ikusten.

Boloek badute etorkizunik?

Bai, elkarteak esku onetan dago, eta badira hainbat gazte jokatzen dutenak. Gainera, gaur egun, txapelketak ondo antolatuta egoten dira.

Noiz arte segituko duzu?

Ez dakit, baina oraindik bolotan egiteko moduan nago, eta sasoiari eusten diodan artean jarraituko dut.



I.A.

HAUTESKUNDEAK

EAJ indar bozkatuena izan da eta bigarrena, Herritarren Zerrenda

I.A.

Normaltasuna izan zen nagusi domekan Europako Legebiltzararako hauteskundeetan.

Elgetan 855 herritarrek zuten botoa emateko aukera, eta horietatik 455 joan ziren udaletxera. Abstentzioa, beraz, altua izan zen: %46'78, hain zuzen ere.


Elgetan alderdirik bozkatuena EAJ izan zen, 190 botorekin. Bigarren indarra HZ izan zen, 99 boto jasota, eta hirugarrena Aralar, 76 botorekin.

BOTO BALIOGABEAK GORA

Martxoan egindako Espainiako Gorteetako hauteskundeetako emaitzak oraingoekin konpara-

tuz gero, EAJ lehenengo tokiari eutsi diola esan daiteke. Izan ere, orduan botoen %41 jaso zuen eta orain %41'75. Bestalde, baliogabetutako botoen kopuruak ere nabarmen egin du gora: %14'7tik %21'75era.

Bestalde, aipatzekoa da Aralar alderdiak izan duen beherakada: %5'4 puntu.



Retegi eta Arretxe final-erdietara

ETB Kantxako lehen final-laurdenak jokatu ziren joan zen asteburuan. Euren partiduak irabazi eta aurrera egin dute Julen Retegi eta Iker Arretxek, abizen bereko pilotari nafar ezagunen semeek. Kadeteen mailan ere, txapelketan aurrera egin duten hiru pilotarietatik bi, Yoldi eta Etxeberria, nafarrak dira. Oraindik 23 urtez azpikoetan bi final-laurden daude jokatzeko eta kadeteen mailan bat. Partidu horiek gaur, barikua, jokatuko dira, 20:00etan hasita./I.A.

KIROLA

Kiroldegiko taberna zozketa publikora

I.A.

Kiroldegiko Bola-Toki jatetxeaz ia bi urtez arduratu ostean, egun bertan diharduen taldeak ez du kontratua berrituko, beraz, utzi egingo du taberna.

Hori dela eta, Udalak beste norbait aurkitu nahi du tabernaren kargu egiteko. Gobernu batzordean baldintzak adostu ostean, aurki kaleratuko dute lehiaketa publikorako deia.

Beraz, Udalak herritarrei zein herritik kanpo dauden interesatuei jakinarazi nahi die lehiaketa publikora zabalduko duela zerbitzu horren ustiaketa.

KIROL INSTALAZIOAK

Tabernako ardura izateaz gain, kirol instalazioetarako sarrera kontrolatzea ere zerbitzu horren jabe egingo denaren lana izango da, baita instalazio horiek garbitzea ere. Lan horien truke, kirol instalazioak erabiltzeagatik kobratzen denaren diru zati bat jasoko dute.

Data oraindik zehaztu gabe badago ere, uztaila amaitu baino lehen jabe berrien esku laga nahi du kiroldegiko taberna Udalak.

Informazio gehiago nahi duenak edo interesatuak udaletxera jo beharko du eta ondoren eskaria aurkeztu.



Egungo tabernako arduradunek ia bi urte eman dituzte bertan lanean.

I.A.



PROFESIONAL
liberalen
GIDA

GESTORIAK

EGUREN

Iraia 3. 943 76 21 65

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

Easo 57, 3-esk. (DONOSTIA).

943 45 27 26 / 656 41 55 49

AHOLKULARITZA

AIERDI AHOLKULARITZA

Artekalea 1. 943 76 03 50

TBG AHOLKULARITZA

Matxiategi 36. 943 76 90 83

ABOKATUAK

RAFAEL ARANBURU

Irizar 5. 943 76 10 81

MILAGROS LARRAÑAGA

Simon Arrieta 1. 943 76 16 28

BERNARDINO MAIZTEGI

Irizar 5. 943 76 10 81

ANA MOZOS

San Pedro 6. 943 76 45 52

JUAN ANTONIO SIERRA

Irizar 2. 943 76 03 35

ARKITEKTU TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

Zurradero 4. 943 76 53 53

ARKITEKTUAK

JON MUNIATEGIANDIKOETXEA

Barrenkalea 22. 687 73 75 67